

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

18/2021 Foru Araua, uztailaren 16koa, 6/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 6koa, baliozkotzeko dena, zerga neurriak onesteko energia fiskalitatearen arloan

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

18/2021 Foru Araua, uztailaren 16koa, 6/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 6koa, baliozkotzeko dena, zerga neurriak onesteko energia fiskalitatearen arloan.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa– 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, uztailaren 6ko 6/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zerga neurriak onesteko energia fiskalitatearen arloan.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da uztailaren 6ko 6/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zerga neurriak onesteko energia fiskalitatearen arloan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 16a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGI GONZÁLEZ DE GAMARRA